

» KONTZERTUA

Giro mistikoa



Montse Auzmendi

Musika saio bat gozatzeko elementu garrantzitsu bat, noski, taula gainean ikusi eta entzuten dugunaren kalitatea da. Baina ez da osagai bakarra, eta, batzuetan, ezta inportanteena ere. Badaude, kasu askotan, saioaren testuinguruko elementu batzuk, benetan baldintzatzen dutenak entzuleak hartzen duen inpresioa. Zumarragako Antioko Baselizan ematen diren kontzertuetan horixe gertatzen da. Zoritxarrez, amaitu da 34. Antioko Musikaldia, baina disfrutatu genuen azken kontzertu honetan, hango espiritualtasunak hartu gintuen eta une magikoa bizi izan genuen. Egun hotza, hezea, baina Antioko ermitaren barruan giro berezia sortu zen, kontzertua hasi orduko.

Giovanni Battista Pergolesik *Stabat Mater* lana bere bizitzaren azkeneko asteetan konposatu zuen. Sentimendu sakona eta sentsibiltate fina nabariak dira obraren zati guztietan. Bakarlariak lan dotorea egin zuten. Ahots biribilak erakutsi zituzten, giro hotza egonda ere, esan bezala. Ana Otxoa soprano bilbotarra adoretz aritu zen, nahiz eta ñabadura gutxiko kantua eskaini. *Cuius animam gementem* pasartearen, adibidez, ederki proiektatu zuen ahotsa, eta duo ederra egin zuen Marife Nogales mezzorekin *O quam tristis et afflicta* zatian.

Agian Nogales mezzoa hobetu luzitu zuen bere ahots sakon eta haragitsua. Aise pasatzen da kantaria erregistro guztietatik, baina ertainekoa du bereziki distiratsua. *Quae morebat et dolebat* pasartearen, beste batzuen artean, horren adibidea izan zen. Matizatua eta ondo fraseatua atera zen.

34. Antioko Musikaldia

EASO ESKOLANIA

Zuzendaria: Gorka Miranda.
Koruko Andra Mari Musika Kapera.

Organo-jolea: Oscar Candendo.
Zuzendaria: Andoni Sierra.
Bakarlariak: Ana Otxoa (sopranoa), Marife Nogales (mezzoa).

Egitaraia: Pergolesi-ren *Stabat Mater*.

Zumarragako Antioko Baselizan. Irailaren 30a.

Koruko Andra Mari Musika Kapera, Andoni Sierraren batutapean, doitasunez aritu zen, eta behar den taxu eta segurtasunarekin azpimarratu zuen ahotsen lana. Oscar Candendo izan genuen organo-jole adierazkorra, bestalde.

Baina benetako protagonistak Easo Eskolaniako gaztetxoak izan ziren. Mutilez osatutako talde honek (Euskal Herrian gaur egun bakarrenetakoa), Antzinako Musikan espezializatuta, eskarmentu handia du, eta nazioarteko orkestra eta zuzendari garrantzitsuenetakoei aritu da. Aldi honetan, erabat afinatuta eta enpastatuta abestu zuten, eta elementu klabea izan ziren saioaren magia eta xarma hori sortzeko, dudarik gabe. ■

Donostiako
Easo Eskolania
Zumarragako
Antioko Baselizan.

